

ITZARTU GAZTE TALDEA: "AISIALDI ESKAINTZA PROPIOA EGITEKO GAI GARA"

Noiz hasi zineten Itzartun? Zergatik?

Mirari Zugazartaza: Berbaroko hezitzaile izaten lau urte daramatzat eta Itzartu gazte taldean, hiru. Udalekuetan sarritan komentatzen genuen urtean zehar Durangon ez zegoela gazteak elkar ezagutzeko tokirik ez ekintzarik. Beraz, duela hiru urte, hainbat hezitzaile bildu ginen egoera hori aldatzeko, eta horretan dihardugu.

Iruñe Garitonandia: Urtarri-amaieran hasi nintzen ni Itzartun. Unibertsitatean elkarrekin batean boluntario gisa aritu behar ginela esan ziguten, eta Itzartun hastea aukera paregabea zen.

Oihane Zubizarreta: Ni aurten ikasturtean hasi naiz, irailean. Umeekin egotea gustuko dudalako eta hezitzaile bezala bide bat hasteko aukera polita iruditu zitzaidalako sartu nintzen.

Maria Preguntegi: Lagun batzuk animatu ninduten eta Oihanekin batera hasi nintzen. Hezitzaile gisa lehen pausuak emateko aukera ezin hobea da.

Beharrezkoa da Itzartu Durangorako?

M. Z.: Bai. Durangoko gazteek ez dute haien aisialdia non igaro, parkean edo kiroldegian ez bada. Gainera, eguraldi txarrarekin okerrago da, eta etxean aterpeetan pipak jaten egotea baino hobea da jende berria giro euskaldun eta ekintzailean ezagutzeko.

O.Z.: Badago adin bat non

ez garen ez ume ez heldu. Umeen parkeak txiki geratzen zaizkigu, baina lagunekin terraza baten eseri, zerbait hartu eta hizketan aritzeko gazteegiak gara. Adin tarte horretan dauden gazteei zuzendutako aisialdia sortzea da Itzarturen helburuetako bat, eta, gainera, aberasgarria da, ikastetxetik at jende berria ezagutzeko aukera ematen duelako.

I.G.: Nik esango nuke Itzartu proiektu bat baino gehiago dela; hezkuntza-iturria ere bada gaztetxoentzat.

Azken ekintzan Ozaetara joan zarete. Zelan ibili zarete?

M. P.: Oso ondo! 35 ume eta 14 hezitzaile joan gara asteburu-pasa. Ezagutza jolasak, gaubela.... Denetik egin dugu.

M.Z.: Talde izaera asko lantzen dugu, eta ekintza hauek egitea beharrezkoa da elkarrekin bizitzen ikasteko. Niri labur egin zait asteburua!

I.G.: Azken egunean, etxerako bidean, umeek oso ondo pasa zutela antzematen zen giroan. Azken baten, hori da garrantzitsuena; umerik gabe ez litzateke horrelako ekimenik egongo.

Etorkizunera begira zein erronka ditu Itzartuk?

M.Z.: Taldeak ondo funtziona dezan, ezinbesteko ikusten dugu hainbat gai eta ezagutzari buruzko formazioa jasotzea. Bestalde, beste gazte talde batzuekin topaketak egitea ere badugu buruan hasieratik, baina inoiz ez dugu



hori egiteko aukerarik izan. Ea datorren ikasturtean...

O.Z.: Erronka nagusienetakoa, nire ustez, gazteen artean aisialdirako aukera hau zabaltzea da, eta beraien gogo eta interesen arabera-ko aisialdia sustatzea.

Zelan gonbidatuko zenituzke gazteak eta hezitzaile berriak?

O.Z.: Gazteentzat Durangoko beraien adineko jende berria ezagutu, eta denok batera ondo pasatzeko aukera ederra da.

M. P.: Nik hezitzaileei esango nieke lan handia egin ahal dugula gazteagoek ez dezaten eduki guk aisialdian eduki genuen hutsune bera eta jabetu daitezten aisialdi eskaintza propioa egiteko gai direla.

Ikasturte amaieran, jaialdia

Itzartuko kideak ikasturtea zelan amaitu pentsatzen dabilta. "Oso saltseroak gara, beraz, ikasturtea bukatzeko festa bat antolatuko dugu. Ekintza dibertigarria eta handia izango da", azaldu du Mirari. Oraindik goiz da ezer ziurtatzeko, baina Oihanak esan duenez, ikasturteari "amaiera biribila" ematea da asmoa. Udan atsedena hartuko dute udalekuetara joateko, eta jaialdia aukera ederra izango da "ikasturtea ondo bukatu eta irailean berriro gogotsu hasteko".

Euskaraldiaren olatua badoa handitzen

Lehen bilera irekiak egin ditugu, eta laster informazioa hedatzen hasiko gara

Hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, euskaraz bizitzeko pausu kontzienteak egiteko deia egingo dugu Euskaraldian. Hala ere, ezinbestekoa da aurrez lanari ekitea, hamaika egun horietan Durangon euskara errazago eta gehiago egin dadin.

Hori da, hain zuzen ere, martxoaren 13an Durangon lehenengoz batu ginen jende taldeak pentsatu genuena: Euskaraldi arrakastatsua gura badugu Durangon lan dexente daukagula aurretik. Horregatik, martxoan hasi eta, bilera batzuk tarteko, hasi gara bidea egiten.

Bilera irekiak egiten ditugu, eta beraz, bertara hurbildu gura duen edonork ateak zabalik ditu. Momentuz, hiru lantaldetan antolatu gara: antolaketa lanak egingo dituztenak, komunikazioa kudeatuko dutenak eta herritarren artean Euskaraldia zer den hedatzen arituko di-



renak. Hemendik eta uda aurrera arte lehenetsuneko eginbeharra izango da Euskaraldiaren berri han eta hemen ematea, herri elkarte eta erakundeetara joko dugu laster.

Udazkenera begira gutako bakoitzak "belarriprest" edo "ahobizi" izan gura dugun erabakitzeko informazioa hedatu gura dugu orain. Hizkuntza gaitasunarekin baino motibazioaren zerikusia daukan ariketa sozial bat abiatuko dugula azaldu gura dugu. Aurreiritziak eta lotsak alboratu eta norbere hizkuntza ohiturretan aurrerapausuak emateko ai-

tzakia paregabea izango da.

Hori guztia ahalik eta publiko zabale-nera hedatzeko ezinbestekoa izango da Euskaraldiaren olatura batuko garen jendea jendetza izatea. Horregatik, gonbidapena egiten dizuegu bakoitzak ahal duen neurrian Euskaraldiaren antolaketan eta zabalkundean laguntzeko. Sarea osatzeko ezinbestekoa delako gutako askoren parte hartzea eta ilusioa. Belarriprest zein ahobizi, denon esku egongo da hamaika egun arrakastatsu lortzeaz gain, ohiturak aldatu eta, zergatik ez, hobetzen hastea.

KLAK!: Gazteen hizkuntza erabileran eragiten

Azken urteotan, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgotik haur eta gazteen hizkuntza ohiturretan eragiteko

'Zergatik ez?' proiektua antolatu izan dugu. Bide horretatik, gazteak euskarara erakartzen egindako lanean jarraitu



gura dugu. Baina aurten, prisma zehaztu eta norabidea berrezartzea erabaki dugu, gazteak gugana hurbildu beharrean, geu hurbilduz eurengana, gazte horiek ezagutuz eta euren ideia eta kezak jasoz: hori #KLAK! proiektuaren bidez egingo dugu.

Euskararen erabileran eta hizkuntza hautuan eragin gura dugu #KLAK! proiektuaren bidez, eta hasi gara Durangaldeko ikasleekin lanean. Proiektua martxotik abendura bitartean gauzatuko da, Durangaldean batxilergoa eskaintzen duten ikastetxeetan. 70 gazte inguru hasi dira martxan. Euskaraz bizitzeko hautua egiten duten 16-18 urte bitarteko gazteei laguntza eta babesa eskaintzea ezinbestekoa denez, euskara erabiltzeko urratsa egin dezaten egingo dugu lan, euskaraz eta bere alde onei buruz hitz eginez, bakoitzaren euskararekiko harremanaz hausnartuz, argumentuak finkatuz...

Bagabiltza lehenengo pausuak ematen. #KLAK!en lehen asteetan, eskualdeko gazteak euskararekin eta sare sozialekin lotutako erronka bat prestatzen hasi dira, eta abendura arte erronka horrekin ibiliko dira lanean. Izango duzue haren berri!

Bazkalostea, jolaserako tartea

Aisialdi eskaintza anitzaz gozatzeko aukera dago Kurutziaga Ikastolan

Jolas-eremu berria eta Haur Hezkuntzako eraikina estreinatzearekin batera, aisialdi eskaintza zabala abiatu dugu eguerdiko ordutegian Ausolan enpresa eta Kurutziaga Ikastolarekin elkarlanean.

Astean 3 egunez, ordu eta erdiz, 4 gunetan parte hartzeko aukera daukate LH eta DBHko ikasleek; sormen eta adierazpen gunea, gunea lasaia, kirol gunea eta jolas gunea. Espazio bakoitzean hezitzaile bi daude dinamizazio lanetan.

Guneak ume eta gaztetxoek iritzi eta proposamenak jasota diseinatu dira; gainera, ikasle guztien parte hartzea bermatuz eta euren arteko harremanak sendotzeko asmoz pentsatuak izan dira, eta inklusioa, hezkidetzeta, elkarbizitza eta jolas askea dituzte oinarri.



Domekäero: ume eta gazteek badute domeketarako plana

Plateruena eta Elkartegia euskaraz bizitzeko gune bihurtzen dira domeka arratsaldero

Martxoaren 11n hasi genuen "Domekäero" proiektua. Durangoko Udala eta Plateruena Kafe Antzokia bidelagun ditugula, domeka arratsaldetan euskaraz bizitzeko gune bihurtu ditugu Plateruena eta Elkartegia.

Bi taldetan banatzen gara, adinka: 6-10 urte bitartekoak Elkartegian batzen gara eta 11-14 urte artekoak Plateruena. Talde bakoitzean 5 hezitzailek 40 ume eta gazte inguru dinamizatzen ditugu domekero,

16:00etatik 19:00etara. Hainbat ekintza egiten ditugu, euskara eta jolasa ardatz hartuta.

Gainera, hilean behin, ekintza bereziak antolatzen ditu Plateruena. Antzerkiak, grafitti tailerra eta sukaldaritza topaketa egin dituzte orain arte. Asteburuak euskaraz jolasten amaitzen ditugu, eta ume, gazte eta familiek eskertzen dute, arratsalde aspergarriak dibertigarri bihurtu ditugulako.

Udaberria Olgetan egonkortuta Ibaizabalen

Udaberrian loratzen dira loreak, baita gu ere, bizipoza nabaria da opor egun hauetan. Azken urteetako esperientzia onean oinarrituta, aurreko ere Olgetan igaro dugu oporraldi hau. Ibaizabal Ikastolan batu gara 30 bat ume eta 4 hezitzaile, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Jolasten, sortzen, abesten eta barre egiten pasa ditugu martxoko azken egunak eta apirilko lehengoak. Egonkortu den oporraldi plana da Udaberrian Olgetan, eta datorren urtean ere prest izango ditugu zazpi egun zoragarri, animatzen zareten guztiontzat.

Dena prest aurtengo udalekuetarako

Ibiltariko gazteak Durangotik Bermeora joango dira

Ikasturtea amaitzeko gutxi falta da, eta Berbaron prest daukagu aurtengo udarako plana: Durangon bertan Udan Olgetan udalekua izango dugu bost astez; kanpaldi bi egingo ditugu Mendigorrian eta Uitzin; eta udaleku ibiltari bat burutuko dugu Durangotik Bermeora.

Ume eta gaztetxo ugarik eman dute izena aurreko ere. Durangoko egonaldian, goizez eta bost astetan, guztira 221 ume eta gazte egongo dira. Mendigorriara LH 3 eta LH 4ko 47 ume joango dira, eta Uitzin, berriz, LH 5 eta LH 6ko 60 haur. DBH 1 eta DBH 2ko gaztetxoak berriz, 60 izango dira Durangotik Bermeora oinez joango direnak. Guztira 51 hezitzaile ibiliko dira udalekuetan lanean.





Aro berria eta lantalde berria Udaleko Euskara Kontseiluan

Batu gara, eratu dugu, ari gara... Udalak deituta eta herriko hainbat eragile elkartzuta Euskara Kontseilua osatu dugu. Baina zertarako kontseilua? Zenbat bider entzun eta irakurri dugu Durango euskaldunago gura dugula! Horixe izan dugu beti, bada, azken helburua, eta aurrerantzean ere bide beretik ekiteko prest gaude.

Ez da berria, ordea, Euskara Kontseilua, berritua baizik. Izan ditugu Durangon horren antzeko organoak, esaterako, Euskararen Aholku Batzordea. Horko kideen lanari esker landu eta sortu izan dira Durangoko Euskara Biziberritzeko planak, aha-lerinak.

Kontseiluak kontseilu (izena gu-

txieneko baita), garrantzitsuena da kide asko batu garena prest datozen erronkei erantzuna emateko, estrategiak zehaztu eta planak egiteko, eztabaidatu eta ekintzak adosteko... Elkarrekin jardungo dugu datorren aro berrian euskaldunok eroso sentitu gaitzen; euskara ez dakitenek ere sentiberatu daitezen; gure herrian estres linguistiko barik bizi gaitzen; gure ume eta gazteek herri euskalduna eraiki dugula ikus dezaten. Hori guztia lortzeko baliabideak ere beharko ditugu, jakina. Beraz, norberak hartzen duen konpromiso irmoaz gain, nahitaezkoa da udal administrazioaren erabateko inplikazioa. Berbaroko kideok prest gaude!

Berbarokook aurten ez gara txosnagunean egongo

Herriko eragileekin beste era batzuetara ibiliko gara elkarlanean

Azken sanfaustoen ostean jaien inguruko hausnarketa egin genuen Berbaroko lantaldean. Urte askotan txosnagunean egon eta gero, jaietan era horretan parte hartzeak eman izan digun lan-kargaz eta emaitzez berba egin genuen, eta, oraingoz, datozen sanfaustoetan txosnagunean ez egotea erabaki dugu.

Txosna batzordeko kideek urte osoan egiten dute lan Durangoko jaiak prestatzeko, eta txosnetan inbertitutako denbora eta lana handia izanik, geldialditxo bat egin eta arnasa hartu gura izan dugu. Durangoren euskalduntzean eragiteko bide berriak aztertu, jaietan zelan parte hartu ahal dugun ikusi, eta herriko eragileekin beste modu batzuetara elkarlanean ibiltzea da gure asmoa.

Jaietan ikusgarritasuna eman izan digun GUKA plataforman ere jarraituko dugu, noski. Bertan gaude Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Ibaizabal ikastola eta Berbaro taldea. Sanfaustoen testuinguruan ezaguna egin den talde horrek urriko aste horietatik haratago ere badu bizia, eta Durangon euskaraz bizitzeko lanean sendo jarraituko dugu.

Arrosa eta Arantza

Arrosa: Sorginolako Ateneoak BERBAZ aldizkaria argitaratu du ekainean. Aldizkaria ezagutzera emateko "24 Orduz Paperean" sorkuntza jolasa antolatu dute. Irakurzaletasuna eta sorkuntza sustatzea du helburua. Euskara sustatzea ez da helburu nagusia eta izan beharrik ez du. Baina ekimena euskaraz da, naturaltasunez, gurea delako.



Arantza: "Inurri eskaut taldea 30 urte" esaldia da Durangoko kalean zehar itsatsita dauden karteletan euskaraz agertzen den esaldi bakarra.

Inurrik erdara hutsean animatzen ditu 8 eta 12 urte bitarteko gazteek, denak D eredukoak, jakina, antolatzen dituzten egitasmoetan parte hartzera. Karteletan euskarak lehentasunik ez duela argi dago, ekintzetan ezin dugu ziurtatu. Komunikazio ekintzetan, behintzat, euskara ez da ohikoa ezta naturala ere; beraz, ez da gurea.

